

• IRABAZI ITURRIAK

Negozio-proposamena ondo diseinatzeak eta modu egokian abian jartzeak, diru sarrerak eta etekinak lortzea ahalbidetuko digu. Gure antiestres lokal honetara sartzeko, ordainketa bat egin beharko da.

ZENBAT ETA NOLA ORDAINTZEKO PREST DAGO ZUEN BEZEROA ESKAINTZEN ARI ZARETEN PRODUKTUAREN EDO ZERBITZUAREN TRUKE?

Prezioari dagokionez, **prezio finkoak** izango dira, hau da, prezioa ez da aldatuko urtaroen, denborada edo beste zerbaiten arabera. Ordainketa hau erositako sarreraren kopuruaren arabera izango da, hau da, bolumenaren arabera prezioa, zenbat eta sarrera gehiago erosi orduan eta merkeagoak izango dira, deskontuak aplikatuz. **Merkatu segmentatua** ere izango da, bezeroak nahi duten profileraren egokitu daitekeelako prezioa, bakoitzak duen diru kopuruaren arabera, hau da, ekonomia arazoak izan ezkerre haiei ere zerbitzu hau izateko aukera izango dute. Prezio hau erabilitako lokal edota objektuen arabera izango da, bezeroak bertan kontsumituko duen denboraren arabera ere izango da prezioa.



Lokalak, estres mailaren arabera banatuko ditugu, eta bezeroak erabakiko du ze lokaletan nahi duen, bere estres maila kontuan hartuz. Zalantzak izanez gero, guk ere lagundu genezakiok aukeraketa egiterako orduan.



Prezioak, **inbentarioaren edo erosketaren egiteko denboraren arabera** izango da. Hau da, lokal honetarako sarrera erosteko orduan, bertan igaroko duzun denborak eragina izango du prezioan. Ez da berdina izango ordu bat eta bi ordu pasatu. Lehen esan bezala, gure lokalera maistasunez etorri ezkerre, deskontuak aplikatuko ditugu.

Beharrezkoa izango den materiala erosteko **ordainketa-bakarreko** diru sarrera beharko dugu, hau da, hasieran jasoko dugu diru kopurua gure lokalean inbertituko dugu, materiala, pareta... eta beharrezko aldaketa guztiak egin ahal izateko. Publizitatea ere garrantzitsua izango dela uste dugu, beraz, horretarako ere dirua beharrezkoa izango dela uste dugu.

Argi dago, gure proiektu hau aurrera eramán ahal izateko dirua behar beharrezkoa izango dugula. Lokal hau sortzeko inbertsioak egitea behar beharrezkoa delako. Hala ere, etekinak aterako ditugulakoan gaude, jendea bertara urbiltzen hasiko baita.